

## LANKIDETZA DESZENTRALIZATUEN BATERAKO ADIERAZPENA COVID-19 KRISIAREN AURREAN

### KRISIALDIAK LANKIDETZAN GAINDITZEN DIRA

Garapenerako lankidetzaren deszentralizatuak –Estatu azpiko administrazioek egiten duguna– **30 urte baino gehiago daramatza** pertsona eta komunitate askoren bizitzak eta ikuspegiak aldatzen, bai lurralde eta herrialde pobretuetan, bai gure inguru hurbilean. Hori erakunde publikoen eta gizarte erakundeen arteko elkarlan sendoa eratuz egin da, baita erronka globalekin konprometitutako jendarte arduratsua sustatuz ere.

COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiak erabat aldatu ditu bizimodua eta gizarte-harremanak, bai tokikoak, bai globalak. Berrito ere zalantzan jarri du pertsona guztien beharrei erantzuteko gai ez den eta planeta mugan jarri duen sistema sozioekonomikoa eta gobernantza-sistema. Horregatik, bistan da lankidetzaren eta elkarlana ezinbestekoak direla. **Krisitik elkarrekin irtengo gara, edo ez gara irtengo.**

Testuinguru honetan, gaur, maiatzak 25, **17 autonomia-erkidegoetako ordezkariok eta Lankidetzaren Funtzen Konfederazioak**, gure kolore politikoa edozein dela ere, eta garapenerako lankidetzaren politikari lagundu behar dion adostasunaren aldeko apustua sendotuz, adierazpen bateratu hau aurkezten dugu. Mundu konplexu, aldakor eta interdependente batean **persona guztien eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea eta bizitza duina erdigunean jartzen duen garapen iraunkorra** sustatzeko ezinbestekoak diren aukerei, erronkei eta proposamenei buruz dihardu adierazpena.

Gure esperientzietatik, gure ikaskuntzetatik eta baterako hausnarketetatik abiatuta, proposamen hauek partekatzen ditugu hemendik aurrera erabakiak hartzeko:

**1. Oreka ditzagun premiazkoa dena eta garrantzizkoa dena.** Bizi garen larrialdi-egoera dela eta, gure ahaleginak premiazkoenera eta berehalakoenera bidera ditzakegu: osasun arloko epe laburreko larrialdiak, suspertze ekonomikoa, gizarte-babesa eta abar. Egoeraren larritasuna dela eta, epe ertain eta luzeko zenbait alderdi ere lehenetsi behar ditugu, hala nola ondasun publiko globalen balioa areagotzea, klima-aldaketaren ondorioak, migrazio handien eta milioika errefuxiatuaren zergatiak, eta abar. Horiek kudeatzeko maila anitzeko ikuspegia funtsezkoa da.

**2. Apustu egin dezagun orain, inoiz baino gehiago, garapen jasangarrirako 2030 Agendaren lokalizazioaren alde.** COVID-19aren krisialdian, elkarrekiko dugun mendekotasun geografikoaz gain, garapenaren eremuak ere elkarren mendeko direla geratu da agerian: osasuna, ekonomia, gizarte-babesa, ingurumena, etab. 2030 Agendaren ikuspegi integralak egun bizi dugun krisialdiari aurre egiteko aukera ematen digu: dauden erronkei tokiko-global ikuspegi koordinatu eta osagarri batetik heltzea. Giza eskubideen ikuspegitik 2030 Agenda aukera bat da, bai gure lurraldean, bai nazioartean.

**3. Egin dezagun aurrera jasangarritasunean.** Pandemiak klima-aldaketaren larritasuna eta bioaniztasuna zaintzeko beharra ere nabarmendu ditu; osasuna, ekonomia eta ingurumena elkarri lotuta daudela frogatu du. Krisialditik ateratzeko neurriek ingurumen-krisiari lotutako arazoei irrimo aurre egitearen alde gaude. Era berean, jatorrizko herriei egiten diegun akonpainamenduaren bidez, haien ingurune naturalarekiko ulermenetik, harremanetik eta errespetutik ikasi nahi dugu.

4. **Defenda ditzagun giza eskubideak.** Krisi honetan kontrol-, errepresio- eta jazarpen-ekintzen normalizatzeak eta sakontzeak kezkatzen gaitu. Horregatik, **nazioartean** giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak, erakundeak, komunitateak eta sareak babestearen aldeko apustua egiten jarraitzen dugu, haientzat bizitza- eta lan-eremu seguruagoak bermatzeko, eta demokrazia eta parte-hartzea, adierazpen-askatasuna eta komunikabideen askatasuna indartzeko.

5. **Eman diezaiegun balio handiagoa guztion ongiari eta parte-hartzeari.** COVID-19aren krisiak erakunde publikoak indartzearen garrantzia nabarmendu du. Osasun arretarekin batera, agerian geratu da beharrezkoa dela politika publikoak ezartzea kalitatezko hezkuntzarako sarbidea bermatzeko, bai eta gizarte-, ingurumen-, kultura- eta abarretarako zerbitzuak ere. Arlo publikoa eraikitzea ez da soilik Administrazioaren zeregina. Beharrezkoa da adostasun sozial zabalak sortzea, ahalik eta eragile gehien bilduko dituztenak. Horregatik, parekoen arteko indartzearen alde egiten dugu, hegoaldeko toki- eta eskualde-administrazioekin, herritarrengandik hurbil daudelako. Era berean, gizarte zibil antolatua indartzearen aldeko apustua egiten jarraitzen dugu, politika publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan parte har dezan; izan ere, pertsona eta talde zaurgarriengandik hurbil dagoenez, bermatu baitezake haien eskubideak defendatzen direla eta inor ez dela atzean geratuko.

6. **Batu ditzagun ahaleginak genero-ikuspegia eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko eta haien eskubideek atzera egin ez dezaten.** Pandemiari emandako erantzunean emakumeen funtsezko ekarpena nabarmendu da, eta positiboki baloratu da emakume buruzagiak dituzten herrialdeek krisiari aurre egiteko izan duten modua. Baina krisiak emakumeengan eragin zehatzak ere baditu: konfinamenduan genero-indarkeria areagotzea, lan-merkatuan sartzeko duten zailtasun handiagoa, etab. Genero-politikak indartzeak, genero-ikuspegia politika eta ekintza guztietan zeharkakoa izateak, emakumeak ahalduntzeak eta haien eskubideak defendatzeak lehentasuna izaten jarraituko du lankidetzaren deszentralizatuan.

7. **Sendotu dezagun gizartea eraldatzeko hezkuntza.** Egoera honetan, gizartea jabetu egin da pertsonen zaurgarritasunaz eta elkarlanean aritzeko beharraz. Gaitasun kritikoa duten herritarren prestakuntza sustatzeko aukera bat da; pertsona guztiei eragiten diguten mundu-mailako arazoei interdependentziaren eta erantzunkidetasunaren ikuspegitik begiratzeko. Egoera hau gardentasuna, informazioa eskuratzea eta datuak aztertzea bermatzeko aukera da ere; informazio faltsuak, aurreiritziak eta arrazakeria antzeman eta horiei aurre egiten jakiteko; bai eta herritartasuna protagonista duten komunikazio-ekimenak proposatzeko ere.

8. **Susta dezagun garapen jasangarriko politiken koherentzia.** COVID-19aren osteko berreraikitze-prozesuak aukera berria ematen digu gure politika ekonomikoak, sozialak, hezkuntzakoak, kulturalak, hiritarrak eta abar berrikusteko, pertsonen zentraltasuna, giza eskubideak, muga ekologikoak eta etorkizuneko belaunaldiak kontuan hartuta. Garapenerako politiken koherentzia inoiz baino beharrezkoagoa da orain. Administrazioak trakzio-lana egin behar du ohitura berriak bultzatzeko: kontratazio publikoan, diru-laguntzak jasotzeko baldintzetan, etab.

9. **Bizkortu dezagun jakintza partekatzea, metatutako esperientzian oinarrituta.** COVID-19ak agerian utzi du pertsona guztien premiei erantzuten ez dien sistema sozio-ekonomiko bat, planetako baliabideak muga-mugan jartzen ari dena. Horren aurrean, lankidetzaren esperientziak ditugu, dagoeneko lanean ari gara benetako ekoizpen-, kontsumo-, zaintza-, eta abarren eredu alternatiboak bilatzeko. Esperientzia hori partekatzeak garrantzia du etorkizunari aurre egiteko eta berraktibatzeak eta berreraikitzeak neurriak ezartzeko orduan. Beharrezkoa da ezagutza kudeatzeko mekanismoak indartzea, baita modu bilateralean ere: esperimendatuz ikastea eta egindakoan oinarrituz ikastea; pertsonengandik eta kolektiboengandik ikastea, baina baita

naturatik ere; lankidetzaren eta garapen-erloto ikerketa-zentroak indartzea; eta garapenerako zientziaren ezagutzen eta aurrerapenen transferentzia erraztuko duten aliantzak sustatzea.

**10. Jar ditzagun zientzia, ikerketa eta teknologia digitalak guztion onerako.** Koronabirusaren krisia gure ohitura asko aldatzen ari da: lanaren antolaketa, etxeko espazioaren eta espazio publikoaren diseinua, irakaskuntza-sistema, tokiko eta nazioarteko garraioak, etab. Teknologia digitalek eta informaziokoek funtsezko eginkizuna dute eraldaketa horietan, eta horregatik bermatu behar dugu haien irisgarritasuna eta erabilera egokia pertsona guztientzat; berrikuntza teknologikoa aplikatu behar dugu arazoak ebazteko, bai eta zientzian eta ikerketan gehiago inbertitu ere; jakintza demokratizatzeko estrategiak hobetu eta arrakalak, digitala barne, murriztu behar ditugu.

**11. Sor ditzagun eragile desberdinen arteko aliantzak.** 2030 Agendan “inor atzera ez uzteko” helburuak eragile guztien konpromisoa, lankidetzaren eta koordinazioaren behar ditu: erakunde aldeaniztunak, gobernu zentralak, eskualdekoak eta tokikoak, gizarte zibil antolatua, sektore akademikoa, sektore pribatua, jendartea, etab. Gaitasunak sendotzearen, aktoreen arteko artikulazioaren, eta espezialitateen eta jakintzen koordinazioaren eta osagarritasunaren alde egiten dugu, eta tokian eragiten duten sare globalak bultzatzearen alde. Elkarlanean aritu nahi dugu, helburu komun argi eta partekatuekin. Gaitasunak sortzeko lankidetzaren eta erantzukidetasun horizontaleko aliantzak eta guneak bultzatzea da lankidetzaren deszentralizatuaren ezaugarrietako bat.

**12. Jarrai dezagun tokiko dinamika eta ekimenen aldeko apustuan.** Krisiak lokalizazioaren garrantzia ere erakutsi du. Tokiko elkartasun-eragile eta -dinamikak funtsezkoak izan dira lurralde bakoitzean pandemiari erantzuteko. Komunitatearen zentzua eta elkarrekiko konfiantza errazagoa da tokiko eremuan. Lankidetzaren deszentralizatutik, tokikoaren aldeko apustua egiten jarraitzen dugu, arlo guztietan: tokiko eta eskualdeetako erakundearen sendotze tekniko eta instituzionala; norberaren jakintza eta jarduteko moduetara egokitzea; ekoizpen-ingurune jasangarri, seguru eta erresilienteak garatzea, edo tokiko herritarren proposamenak babestea.

**13. Berretsi dezagun garapen globalaren finantzazioarekin dugun konpromisoa.** Egun ez da herusturaren unea, krisia gainditzen lagunduko duten inbertsioena baizik, bai tokiko mailan, bai maila globalean. Nazioarteko elkartasuna ezinbestekoa da planetaren etorkizuna bermatzeko. Adostasun sozial eta politikoak proposatzen ditugu, tokiko zein mundu mailako beharrak eta erronkak gainditzeko beharrezko baliabideak ziurtatzeko.

**14. Gardentasunez kudea ditzagun baliabideak eta eman ditzagun kontuak.** Erabakiak hartzeko prozesuetan, baliabideen kudeaketan eta emaitzen komunikazioan gardentasuna eta kontu-ematea indartzearen alde egiten dugu, baita politika publikoen jarraipena eta kontrola zehaztasunez eta erantzukizunez egiteko gizarte zibilaren gaitasunak indartzearen alde ere.

COVID-19ak eragin nabarmena izan du gizarteetan, eta eraldaketa globala bizkortuko du maila guztietan, ekonomikoetan, sozialetan eta politikoetan. Lankidetzatik, oinarriko printzipio demokratikoak defendatzen ditugu, pertsona guztien giza eskubideak bermatzeko, bereziki zaugarrienenak; baita justizia, garapen indibidual eta kolektiboa, ingurumena eta bakea bermatzeko ere. Horregatik, autonomia erkidegoek eta tokiko erakundeek aliantza eta adostasun politiko eta sozialak sendotzearen alde egiten dugu, horien bitartez lankidetzaren inbertsioak egiten jarraitu dezan eta **oraina eta etorkizuna bermatzen laguntzen jarrai dezan, inor atzera utzi gabe.**

**Krisitik lankidetzaren irteten delako.**